





IRAURGI BERRITZEN:

Iraurgi Berritzen : Lankidetzaren eta antolaketa ereduaren Hezkuntza arloa eta Ikasle Orientazioa bideratua



Begoña Beobide Azpeitia
bbeobide@iraugiberritzen.eus
688620144

<https://iraugiberritzen.eus/index.php/eu/hezkur-eta-nola-egiten-dugu-lan>

-
-  **Jarduera:** Iraurgi Berritzen (IB) Urola Erdia eskualdeko udal erakunde publikoen sustapen sozioekonomikoko eta berrikuntzako estrategiak integratzen dituen eragilea da . Sustapen hau lortzeko, eskualdearen eraldaketan eragitea dauka helburu, eskualdeko eragileekin lankidetzan.
 -  **Sektorea:** Eskualdeko sustapen eta bultzada sozioekonomikoko zerbitzuak
 -  **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 15
 -  **Lokalizazioa:** Julio Urkijo etorbidea 25, Itsausti Jauregia, 20720 , Azkoitia, Gipuzkoa

EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Behetik gorako antolaketa eredu publiko-privatua lehenbizi Hezkuntza arloan aplikatu duen garapen agentzia delako. Ganera, GEROLAN proiektuaren bitartez ikasleak beraien ikasketa eta orientazio prozesuetan protagonista bihurtzen dira, eskualdeko enpresa nahiz eragile desberdinen errealtateak ezagutzera bideratutako espazio nahiz proiektu desberdinak sortuz. Eskualdeko hezkuntza ehuna osatzen duten 5 ikastetxeen arteko elkarlan GUNE-an egituratzen da, banaka dituzten orientazio planei proiektuak ikuspegi kolektibo bat ematen diolarik.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

Iraurgi Berritzen (IB) Urola Erdiko garapen eta berrikuntza agentzia da, eta eskualdeko sustapen sozioekonomikorako politika eta estrategia publikoak garatzeaz arduratzen da, tokiko udalekin lankidetzan.

Haren antolaketa-eredua lankidetzara publiko-privatua oinarritzen da, eta eskualdeko hainbat eragile sozioekonomikorekin lankidetzan aritzeko hainbat guneren (GUNEen) bidez antolatzen da. Gaur egun, IB sarea 7 GUNEtan egituratzen da: Lurralde Garapena, Enpresa, Enplegua, Ekintzailetza, Turismoa eta Merkataritza eta Hezkuntza. Hezkuntza-eremua sortu berri da gehien, eta beste garapen-agentzia batzuetatik bereizten dituen lan-esparrua da. Hain zuzen ere, Hezkuntzako lan-eremu berritzaile horren esparruan, 6 proiektu berritzaile eta lankidetzakoak garatu dira (Ikasiz, Ikastetxeak Saretzen, Elkarrekin Eraikitzen, STEAM Urola Erdia, GEROLAN eta Izan Ekintzaile) hezkuntza-eragileak ibarreko beste eragile batzuekin (enpresak, ekintzaileak, etab.) lotzeko erronkaren inguruan, interes komunetan oinarrituta, haien arteko arrakala murrizteko, eta gazteek tokiko errealtate sozioekonomikoa ezagutzeko beharra identifikatzen da. Ildo horretan, 2019an, GEROLAN proiektua diseinatu eta abiarazi zuen, eskualdeko 5 ikastetxetako (Azkoitia BHI, Azpeitiko Ikastola, Urola Ikastola, Salesianos Loyola, Iraurgi Ikastetxea) ikasleei lan-orientazio indibidualizatua emateko helburuarekin. Proiektu horren berritasuna ikasleen lan-orientazioaren gaiari elkarlanaren bitartez heltzen dioten lehen garapen agentzia direla da eta gainera gazteek beraien gogoeta orientagarriaren protagonista bihurtzen direla, hainbat eragile eta profesionalekin zuzenean elkarreraginez. Horretarako, hainbat ikastetxetako 5 hezkuntza-orientatzailek osatutako lantalde bat bultzatzen da, eta hainbat dinamika diseinatu eta garatzen dira DBH 4ko eta BTX2ko ikasleen eta eragile sozioekonomikoen artean (35 hausnarketa-saio, bisitak, orientazio-mapak, ondorengo lanak, etab.), ikasleen interesen arabera. 2019/2020 ikasturtean egiten den proiektuaren emaitzak oso onak dira, 15 enpresak parte hartzen dute eta ikasleek, irakasleek eta profesionalak balorazio bikaina egiten dute. Gainera, eskualdeko eragileen arteko harremanak indartu dira, Hezkuntza esparruaren barruan identifikatzen ari diren erronka berriei begira. GEROLAN proiektuari dagokionez, egindako ebaluazioaren ondoriozko hobekuntzak identifikatu dira, eta hurrengo edizioetan txertatuko dira, eskualdeko gazteen orientazio planak elkarlanean hobetzen jarraitu ahal izateko eta etorkizuneko erabakiak hartzeko informazio eta ezagutza baliotsua izan dezaten.

Aurrekariak

IB-en tokiko garapena eragileekin elkarlanean oinarritzen da, behetik-gorako lan eredu batekin, Gune (arlo) desberdinetan artikulatzen delarik modu ordenatuan. 2010. urtean eskualdeko behar eta erronka berri zein amankomunei erantzuna emateko, talentuaren eta pertsonen gaitasun eta konpetentzien inguruan, Hezkuntza Gunea abian jartzea erabakitzen da, lurralde garapen ikuspegitik duen garrantzia balioan jarriz. Hezkuntza eta bailarako eragile desberdinen arteko harremanean alde izugarria ikuskatzen zen eta Gazteen tokiko errealtate sozioekonomikoa ezagutzearen beharra identifikatu zen.

Erronka

Hezkuntza ehuna aktibatu, tokiko eragile desberdinekin batu eta erronka amankomunen inguruan proiektu zabalak definitu eta garatzea da. Ildo horretan, erronka nagusiak ikastetxetako orientazio planak indartzea eta ikasle/irakasle eta eragile desberdinetako profesionalen arteko harremana sendotzeko espazio eta prozesu desberdinak sortzea dira. Hemen kokatzen da GEROLAN Orientazioa proiektu berritzailearean garapena non ikasleak beraien orientazio hausnarketan protagonista dira, eragileekin interakzio zuzenarekin, errealtate gordina ezagutzeko izan ditzaketen interes zehatzen arabera.

Ekintzak

1. Enpresa Gunean, agentziaren lan markoaren gogoeta estrategikoan, Hezkuntza arloa barneratzearen beharra espezifikatu egiten da
2. Horrela, 2010ean Hezkuntza Gunea-ren sortzen da
3. Beharren araberako proiektu kolektiboak identifikatzen dira eta Gunea sendotzen joaten da
4. 2019. urtean GEROLAN Orientazioa proiektua bultzatzen da beharren eta urtero egindako ebaluazio partekatuen ondorioz
5. Ikastetxetako 5 orientatzaileek osatzen duten lan taldea martxan jartzen da (proiektuaren diseinua, planifikazioa eta ebaluazioa urtero egiteko helburuarekin)
6. 5 ikastetxetako orientazio plan indibidualak modu kolektiboan aberasteko lan markoa ezartzen da
7. Ikasleekin banakako orientazio hausnarketarako dinamikak martxan jartzen dira, adibidez bailarako eragile sozioekonomikoetara bisitak interesen arabera, DBH4 (Erdi mailako zikloak) eta BATX2 mailatan (Unibertsitate ikasketak eta Goi Maiako zikloak)
8. Orientazio ikuspegitik enpresetara bisita konkretuak antolatzen dira (5 ikastetxetako ikasleak elkarrekin)
9. 2020ean kurtso eta proiektuaren amaieran, Orientatzaileen Lan Taldeak prozesuaren ebaluazioa egiten da hurrengo ikasturtera begira berrikuntzak sartzeko
10. Etorkizunera begira hurrengo ekintzak definitu dira:

- Harreman denak errazten eta sendotzen jarraitzea
- Eragile ordezkari desberdinak ere Hezkuntzara (ikastetxeetara) gerturatzea
- Dinamika desberdinak egitea ikastetxeetan eragileekin hezkuntza proiektua partekatu eta Harreman aukera berriak antzemateko
- Gazteen Orientazio planak hobetzen jarraitzea denon artean

Lortutako emaitzak

- 6 elkarlan proiektu hurrengo emaitza orokorrekin:
 - o 5 ikastetxeren parte hartzea (zuzendaritza taldeak + proiektu taldeak)
 - o 2 saio kolektibo Antolaketa Ereduak ikastetxeetan 5 zuzendaritza taldeekin (Ikasiz)
 - o 40 irakasleren partehartze aktiboa (proiektu lider eta lan taldeak)
 - o 400 ikasletik gora proiektuetan
 - o 54 ikasle lantalde (Elkarrekin Eraikitzen)
 - o 60 eragile sozioekonomikorekin interakzioak (proiektu guztietan)
 - o 10 STEAM proiektu urtero (Steam Urola Erdian)
 - o Zientzia Azoka eguna 2022 (Steam Urola Erdian)
 - o 6 ekintzaileren partehartzea (Izan Ekintzaile)
- GEROLAN ORIENTAZIOA proiektuari dagokionez, tokiko impaktu handia:
 - o 5 ikastetxeetako orientatzaileen arteko elkarlana
 - o DBH4 eta BTX2-ko ikasleekin 35 hausnarketa saio ikasgeletan orientazio ikuspegitik
 - o Proiektuaren balorazio bikaina (Ikasle, irakasle eta eragile ordezkariak): 9,3/10
 - o 15 enpresa eta beste hainbat eragileren partehartze aktiboa
 - o Interes zehatzen araberako 3 ekintza pilotuen garapena: Bisitak bailarako Lanbide Heziketa eta enpresa desberdinetara Goi Mailako eta Erdi Mailako ziklotan interesa dutenentzako eta Unibertsitate ikasketetan interesa dutenekin enpresa zehatzetara bisita egokituak

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Prozesua: Antolakuntza eta pertsonak.

Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa

Miriam Arrieta (IKASBERRI Ikastolako Orientatzailea)

"Ikasleekin zuzeneko harremana dugu eta beraien etorkizuneko erabakietan bidelagun izaten gara. Horrek eguneratua egotea dakar eta lagungarri zaigu bai orientatzaile ezberdinen mahaia eta Iraurgi Berritzenek eskaintzen dizkigun proiektu desberdinak, errealitatea eta lan merkatua uztartzeko eta harremanak sortzeko aukera ezin hobea direlako"

Patxi Landa (SAMMIC enpresako arduraduna)

"Ingurunearekin ditugun harremanetan, garrantzitsuak dira Iraurgi Berritzenen bitartez ditugunak. Irakaskuntzan, balio handia du pertsona aldetik ditugun beharrak azaltzea eta etorkizunerako jendea ezagutzea. Komunitaterai eta ikaslegoari, enpresak dituen jakintza, baloreak, kultura transmititzea ezinbestekoa da bailararen geroari eta oparotasunari begira"

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★☆☆★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★☆☆★

Aintzatespena: ★★☆☆★